



EAEko ikasleei eta irakasleei egindako
inkesta pilotuari buruzko ondorioak

Finantza-hezkuntza ikasgeletan
2019

Gaur egun, ekonomiaren eta finantzen alorreko hezkuntzan, **inolako kritikarik egin gabe** irakasten da nola funtzionatzen duen orain nagusi den sistema kapitalistak, zein diren haren kontzeptu nagusiak, zein ohiko enpresa motak, ekintzailatza ere ikuspegi kapitalistatik azaltzen da, eta abar. Ez da aztertzen zer eragin dituen gaur egun nagusi den eredu ekonomiko honek, ez da beste eredu alternatiborik erakusten, eta ez da gure inguruko gizarte-gaien arazoiei buruzko gogoetarik edo sakoneko ulermenik bultzatzen ikasleen artean; hori horrela, ez zaie laguntzen ikuspegi kritikoa izaten, ez eta bizi duten errealitateari buruz nork bere iritzia izaten ere. Hortaz, adimen estatikoak sortzeko modu bat da; adimen horiek, etorkizunean, sistema berari eusteaz arduratuko dira, guztiak berdin jarraitu dezan, giza garapena mugatuta eta etorkizunean bestelako iritzia, nahi edo erabaki batzuk sortzeko aukera deuseztatuta.

Horregatik, **Finantzaz Haratago** sareak azterlan bat egin du, EAEko ikasleek eta irakasleek, 2019an, finantza etikoei buruzko zer ezagutza duten aztertzeko. Azterlana on-line inkesta pilotu baten bidez egin da, eta inkestatuek beraiek bete dute hura.

Zenbait gai aztertu dira, hala nola ebaluazio metodoak, interesak, sistema ekonomiko orokorrari buruzko balioespenak, genero-desberdintasunak, diruarekin eta banku-sistemarekin lotutako zenbait alderdi, finantzak eta profil sozio-ekonomikoa eta kontsumokoa, finantza etikoen alorreko Ekonomia Sozial eta Solidarioarekin lotutako erakundeen ezagutza eta haiekiko balizko elkarlanerako interesa...

Guztira, 97 pertsonak hartu dute parte (59 ikasle eta 38 irakasle). Ikasleen %82 DBHko 3. eta 4. mailetakoa zen, eta %18 Batxilergoko 1. eta 2. mailetakoa. Irakasle guztiak, berriz, DBHko maila

horietakoak ziren. Esan behar da Bizkaian izan dela parte-hartze handiena (ikasle guztien %74 eta irakasle guztien %52,5); gero, Gipuzkoan; eta Araban, berriz, parte-hartzea oso txikia izan da. Beraz, kontuan hartu behar dugu **Arabako eta Gipuzkoako ikastetxeek Finantzaz Haratago sarean parte hartzeko interesa sustatu behar dela.**

Inkesta pilotu hori egin ostean, honako alderdi hauek landu behar dira, behin betiko inkesta prestatu baino lehen:

- Batxilergoko ikasleen eta irakasleen parte-hartzea areagotu.
- Inkestak ezagutarazteko data hobeak aurkitu; adibidez, bigarren hiruhilekoaren hasieran. Izan ere, horrela, kontuan hartuko lirateke lehen hiruhilekoan landutako ikasgaiak, eta erantzuteko denbora nahikoa izango lukete.
- Ondorio esanguratsuagoak lortze aldera, parte-hartzaileen lagin orekatuagoa lortu beharko genuke. Parte-hartzaileak orekatu behar dira; parte hartzea erabakitzen duten ikastetxeetan, ikasleen eta irakasleen inplikazioa lortzeko konpromisoa hartu beharko litzateke, eta ikasturte guztietakoek erantzutea izango litzateke hoberena (DBHko 3. eta 4. mailak, eta Batxilergoko 1. eta 2. mailak).
- Erantzun graduatuak (batzuetan, beti...) interpretatzea zaila da, eta ez dute ondorio erabakigarrikerik ateratzeko aukerarik ematen.
- Galdera kopurua murriztu, gutxiago utz ditzaten erantzun gabe.

Material didaktikoak

Jakin ahal izan dugu parte hartu duten ikastetxeetan zer motatako material didaktikoak eta metodologiak dituzten gustuko, eta hori oso erabilgarria izango da finantza etikoak ikasgeletara hurbiltzeko orduan.

Ikasle gehienek gustukoago dituzte irakasleek sortutako materialak, eztabaidak, webguneak eta ikus-entzunezko formatuak. Eta ebaluazio-metodo gisa, ikasgelako parte-hartzea, lanak eta talde-aurkezpenak dituzte gustukoak. Irakasleen erantzunekin alderatuta, haiek diote beren materialak erabiltzen dituztela gehien, Interneteko iturriekin eta irakasgaiko eskuliburuarekin batera; aldiz, irakasleek diote metodo dinamikoak, hala nola jolasak, eztabaidak eta irteerak, gutxi erabiltzen dituztela. Alabaina, irakasleek diotenez, azterketez gainera, ikasgelako parte-hartzea hartzen duten kontuan ebaluatzerakoan.

Hori horrela, **material eta metodo dinamikoagoak** sortzeko beharra ikusten da; horrek ikasleen parte-hartzea areagotzeko bidea emango luke. Gainera, kontuan hartu behar da iritziak elkarri azaltzea gogoeta eragiteko, pentsarazteko eta ikasleen adimena lanean jartzeko modu hoberena dela, eta, beraz, beren irizpide propioak sortzeko eta haien inguruko errealitatea ulertzen laguntzeko modu egokiena.

Informazioa zabaltzea

Beste alde batetik, kontuan izan behar da **sare sozialak** (%92) eta kirola direla ikasleen interes nagusiak, eta literatura eta politika, berriz, gutxien interesatzen zaizkien gaiak. Azpimarratzekoa da, baita ere, ekonomia interes handia eragiten duten gainerako bat dela.

Albisteen berri izateko, sare sozialak, webguneak eta telebista erabiltzen dituzte nagusiki. Hortaz, sare sozialen bidez Ekonomia Sozial eta Solidarioari (ESS) eta Finantza Etikoei (FE) buruzko informazioa hedatzea funtsezkoa izango da hezkuntza askotarikoa lortu nahi badugu.

Edukiak

Zenbait gai ez dira behar beste lantzen ikasgeletan, baina, halere ikasleek izan dute haien berri ikasgeletatik kanpo; adibidez, ekonomia feminista, ekonomia sozial eta solidarioa, kristalezko sabaia, enplegu-prekarietatea... Aitzitik, beste zenbait kontzeptu aipatu berri ditugun horiek baino askoz ere gutxiago ezagutzen dituzte, ez baitute haien berri izan ez ikasgeletan, ez haietatik kanpo; adibidez, agroekologia, finantza etikoak, moneta sozialak, enpresen deslokalizazioa edo espekulazio-burbuila. Erantzunetan ikusi da neurri handiagoan ezagutzen dituztela honako hauek: soldata-arrakala, ekintzailtza, desazkundera, giza eskubideak, lankidetzak, kontsumo arduratsua eta klima-aldaketa.

Hortaz, hauek dira gehiago landu beharreko gai nagusiak: finantza etikoak, moneta sozialak eta agroekologia, espekulazio-jardueren eta enpresen deslokalizazioaren ondorioekin batera. Bai eta ikastetxeetatik kanpo entzun dituzten baina ikasgeletan behar beste lantzen ez diren honako gai hauek ere: ekonomia feminista, ekonomia

sozial eta solidarioa, langabezia eta lan-prekarietatea, kristalezko sabaia eta enpresa-gardentasunaren garrantzia. Zentzu horretan, kontzeptu horiek material didaktikoetan sartzeaz gainera, prestakuntza eman behar zaie irakasleei, gehien behar duten gai haietan; adibidez, ikasgeletan oso gutxi lantzen diren gai horiei buruzko prestakuntza (ekonomia feminista, finantza etikoak, moneta sozialak...). Izan ere, irakasleen %85ek esan du etikarekin eta balioekin lotutako gai gehiago landu nahiko lituzketela.

Ikasleek eta irakasleek ikasgeletan lantzen diren gaiei buruz emandako erantzunak bat datoz gehienetan, hasieran aipatutako desoreka horrekin lotutako zenbait kasutan izan ezik. Irakasleek diote batez besteko mailatik gora landu dutela ESSren gaia, bai eta espekulazio-burbuilarena, deslokalizazioarena, langabeziarena, prekarietatearena eta gardentasunarena; baina ikasleek batez bestekotik behera kokatzen dituzte gai horiek. Hortaz, pentsa dezakegu, agian, ikasgeletan landu badira ere, ikasleek ez dituztela sakonki ulertu, eta, beraz, ez dituztela gogoratzen; edo, besterik gabe, ikastetxe batzuetan irakasleek bakarrik erantzun dutelako eta beste batzuetan, berriz, ikasleek bakarrik erantzun dutelako ere izan daiteke.

Edonola ere, ikasgeletan zer gai landu diren aztertzeaz gainera, nola landu diren eta ikasleek zenbateraino ulertu dituzten ere aztertu behar da. Horren adibide da, esaterako, honako hau: inkestei erantzun dieten ikasleen %45ek uste du herrialde pobretuak garatzea eragozten dieten arrazoi kulturalen, sozialen edo materialen ondorioz direla pobre (baliabide naturalik eta ekonomikorik ez dutelako); eta, aldiz, %55ek aitortzen du herrialde aberats direlakoek botere-harremana ezartzen dutela, eta sistema ekonomikoa bidegabea dela. Azpimarratzekoa da, baita ere, ikasleen %40k adierazle ekonomikoekin eta enpresen eta biztanleen aberastasunarekin bakarrik lotzen dutela garapena.

Lan-merkatuari dagokionez, ikasleek badakite emakumeek desberdintasunean oinarritutako egoera bidegabeak pairatzen dituztela; ikasleen %82k uste du emakumeek gutxiago kobratzen dutela etxeko lanekin eta zaintzarekin lotutako lanak hartzen dituztelako beren gain, eta %89k dio, ahalmen berak izanda ere, lan-aukera gutxiago dituztela.

Alabaina, ikasleek diote langileak direla aberastasuna eta balioa sortzen dutenak (enpresarien orde), eta, era berean, %79k dio lan-baldintza okerragoak onartu behar dituztela negozioa ez bada lehiakorra. Hortaz, susmatzen dugu ez dutela ondo ulertzen zer dagoen lan-harremanen inguruan, zein diren rola, zer erantzukizun dituen bakoitzak...

Beste alde batetik, koherentzia faltak ikusi ditugu **zergei** buruzko erantzunetan; hortaz, ondoriozta dezakegu ezagutza txikia dutela zerga-arloari buruz, eta gai hori ere sendotu behar denetako bat dela. Gehienek badakite zergak beharrezko tresna direla eskubide sozialak bermatzeko, baina, era berean, %66k dio zerga gutxiago ordaindu beharko lirатеkeela, eta bakoitzak behar duena ordaindu beharko lukeela, zerga-iruzurrari aurka egiten ibili beharrean. Edo kontsumitzen diren produktuak eta zerbitzuak bakarrik zergapetu beharko lirатеkeela. Gainera, %45ek uste du zergak berdinak izan behar lirатеkeela pertsona guztientzat, haien errenta-maila edozein izanda ere.

Gizarte-justiziaren alorrean ere, ikusi dugu ikasleek zailtasunak dituztela zenbait gai sozial ulertzeko eta haiei buruzko iritziak sortzeko. Ondorioztatu dugu erantzunak ez dituztela oso argi, iritziak askotarikoak baitira. Edonola ere, irakasleek sendotasun handiagoz erantzun diete galdera berei, eta jarrera kritikoak eta argiak erakutsi dituzte. Esate baterako, banku-erreskatearen kostua bere gain nork hartu behar izango zuen galdetu dugunean, ikasleek ez daukate oso garbi, eta haien erantzunak oso banatuta gelditu dira zenbait aukeren artean; irakasleek, berriz, aukera baten alde egin dute argi eta garbi (%72k akziodunak hautatu ditu).

Zenbait eragile ekonomikok etxegabetzeetan duten erantzukizun-mailari buruz galdetu dugunean ere era askotako iritziak adierazi dituzte. Ildo horretatik, azpimarratzekoa da ikasle askok uste dutela Estatuak eta bankuek ez dutela inolako erantzukizunik; irakasleen artean, berriz, gehienek uste dute familiek ez dutela inolako erantzukizunik. Horrek pentsarazten digu ikasleek ez dutela oso ongi ulertzen nola funtzionatzen duen finantza-sistemak, ez eta zer paper jokutzen duen Estatuak zenbait gai ekonomikotan eta herritarren eskubideak bermatzearekin lotutako gaietan.

Ekonomia Sozial eta Solidarioari buruzko galderei dagokienez, erantzun gabe utzi dituzte askok; irakasleen %30ek bakarrik esan du badakiela zer den ESS, eta %9k soilik daki Banku Etikoak daudela (aldiz, irakasleen %87k adierazi du badakiela zer den ESS, eta %84k Banku Etikoak ere ezagutzen dituela). Argi gelditu da, oro har, Finantza Etikoak ez dituztela ezagutzen, irakasleen %58k uste baitu Banku Etikoek ere etxegabetzeak gauzatzen dituztela, ohiko bankuek bezala, eta ez dituztela beren proiektuak gardentasunez azaltzen (%51); gainera, %74k bakarrik daki ohiko bankuek giza eskubideak urratzen dituzten proiektuetan inbertitzen dutela.

Alabaina, ezagutza falta handia bada ere, %76k uste du finantza etikoak funtsezkoak direla emakumeen aurkako bazterkeria desagerrarazteko, baina, beste alde batetik, gehienek uste dute emakumeek eta gizonek tratatu bera jasotzen dutela ohiko bankuetan. Hori horrela, finantza etikoei buruzko material didaktikoetan bereziki landu beharko lirateke **generoarekin eta finantzekin** lotutako gaiak (eta irakasleei prestakuntza eman), ikasleek hobeki jakin eta uler dezaten emakume askok bazterkeria ekonomikoa eta soziala pairatzen dutela, eta jakin dezaten zer egiten duten banku etikoek horri aurre egiteko. Halaber, materialak emateaz gainera, ikasleek nahiago izango lukete finantza etikoak jardueren, bisiten, hitzaldien eta abarren bidez ezagutzea.

Laburbilduz, finantza-hezkuntzako eduki gehienak, gaur egun, honako hauekin lotuta egoten dira: finantza pertsonalak, aurrezteak, pentsio-planak, aseguruak, familia-aurrekontuaren plangintza, ekintzaile-sena, ekonomia- eta finantza-sistema nagusiaren oinarritzko kontzeptuak...

Hortaz, honako gai hauek landu eta sakondu beharko lirateke:

- **Ekonomia feminista.** Ikasgeletan lantzen dira soldata-arrakala eta antzeko beste zenbait alderdi, baina askoz ere gehiago sakondu behar da genero-gaietan, eta prestakuntza egokia eman behar zaie irakasleei, edukiak ahalik eta hobekien azaldu ditzaten. Gaur egungo errealitatea eta beharrezko gizarte-eraldaketa hobeki ulertzeko funtsezkoak diren hainbat gai lantzen ditu Ekonomia feministak. Finantza-hezkuntzari buruzko programa nagusiek ez dute genero-ikuspegia kontuan hartzen; hortaz, oso garrantzitsua da emakumeen finantza-bazterketa, krediturako eskubidea eta abar lantzea.
- **Ekonomia Sozial eta Solidarioa,** horrek dakarren guztiarekin. Ikasleek beste eredu ekonomiko batzuk ezagutzea komeni da, beste enpresa, erakunde eta sektore mota batzuk; jakin behar dute ekonomia pertsonen zerbitzura jar daitekeela, alderantziz izan beharrea.
- **Finantza etikoak,** eta egungo sistemarekiko alderaketa, lehena hobeki ulertzeko. Oso garrantzitsua da ikasleek ongi ulertzea zertan diren desberdinak bi finantza-eredu horiek, zer eragin dituen bakoitzak, zer etiketa eta gardentasun-maila dituzten jarduerak, eta abar.
- **Lan-merkatua.** Emaitzek erakutsi dutenaren arabera, ez da behar beste azaltzen, edo ez da ondo ulertzen, zer dagoen gaur egungo lan-prekarietatearen, langabeziaren, aukera-desberdintasunaren (adibidez, kristalezko sabaia), lan-eskubideen urraketaren eta abarrean atzean.

- **Enpresen deslokalizazioa,** eta haren ondorioak. Ikasleek diotenez, batez bestekoa baino gutxiago lantzen den gaietako bat da hori. Behar-beharrezkoa da ikasleei ulertaraztea nola sortzen diren eguneroko bizitzan erabiltzen ditugun produktuak, hala nola mugikorrak eta arropa, eta horrek zer ondorio dakartzan beste pertsona batzuentzat eta planetarako. Kontsumo arduratsuak benetan zer esan nahi duen jakin behar dute, zer diren garapen-adierazleak, Iparraldea-Hegoaldea desberdintasun-harremanak ezagutu...
- **Gizarte-ekintzailletza.** Ekintzailletza ikuspegi kapitalistatik lantzen da beti; oso garrantzitsua da ekintzaile izateko beste modu eta beste balio batzuk ezagutaraztea (lankidetzak, tokiko garapena, gobernantza demokratikoa, pertsonak ardatz, eta abar).
- **Zergak.** Inkestek erakutsi dutenez, ikasleek gutxien ezagutzen duten gaia dela dirudi, edo ulertzea gehien kostatzen zaiena. Hobeki azaldu beharko litzateke zer zentzu duten zergek, nola dauden antolatuta gaur egun, zer den iruzur fiskala eta zer ondorio dituen, etab.

Lankidetzan jarduteko prestutasuna

Azken alderdi honetan, irakasle batzuek azpimarratu dute hitzaldiak jaso dituztela zenbait erakunderengandik, hala nola Kutxabank edo BBVA erakundeengandik, eta %95 finantza etikoetan diharduten erakundeengandik laguntza jasotzeko prest agertu da. Irakasle gehienek ikasleen gogoetarako eta kritikarako ahalmena eta inguruan duten munduarekiko enpatia landu nahi dituztenez, garbi ikusten dugu irakasleak metodo berriak erabiltzeko eta ikasgeletan lantzeko edukien sorta zabaltzeko prest daudela. Hori horrela, kasu honetan borondaterik falta ez denez, aztertu behar dugu zer oztopok galarazten duten beste eredu ekonomiko batzuk ezagutaraztea.

Irakasle gehienek diote denbora, baliabide eta ezagutza faltagatik dela. Egindako azterketaren ostean, ondoriozta dezakegu hauek direla ESS eta FE ez ezagutzearen arrazoi nagusiak:

- **Irakasleek ere ez ezagutzea.** Ikastetxeetako irakasleei arlo horri buruzko prestakuntza eman beharko litzaieke, haiek arduratu daitezen finantza hezkuntza ikastetxeetan lantzeaz; hau da, “prestatzaileen prestakuntza” sustatu behar da. Irakasleek ez badituzte ezagutzen ESS, FE, ekonomia feminista, eta abar, edo ez badute arloa menderatzen, ezin izango dizkiete gai horiek ikasleei azaldu.

Hortaz, irakasleei gai horiei buruzko prestakuntza ematea behar-beharrezko urratsa izango da, hala eskatzen badute. ESSko erakundeek, adibidez, irakasleei zuzendutako lantegi edo prestakuntza-saio laburrak antola ditzakete lehen aipatutako gai horiei buruz.

- **Material didaktikorik ez izatea.** Premiazkoa da, baita ere, material eskuragarriak eta ikasleentzat erakargarriak eta ulergarriak direnak sortzea (kontuan hartu behar da ikasleek lehen aldiz entzungo dituztela zenbait termino, eta, beraz, hizkuntza egokitu behar da). Denbora-mugak kontuan hartuta,

material edo jarduera laburrak izan behar dira. Eta, beste alde batetik, dinamikoak izan behar dira, ikasleen elkarreragina eta parte-hartzea sustatzen dutenak, hala nola eztabaidak, erakundeetara bisitak, hitzaldiak/testigantzak, jarduera ludikoak...

- Sistema nagusiarekiko beste alternatiba batzuk ezagutarazteko **interes politikorik ez izatea**. Politikan eragin behar da, sentsibilizazioa sustatu, eta erakundeen arteko lankidetzasareak sortzen jarraitu, ekonomiaren alorreko hezkuntza eraldatzen joateko pixkanaka.

Inkesta honen emaitzak dirudienez ikastetxe gehienetan errepikatzen den ereduaren adibide dira, eta ikasgeletara finantza-hezkuntza anitzagoa eta askotarikoa nola helaraz daitekeen erakusten digute.

Era berean, irakasleekin batera inkesta hobea eta osoagoa diseinatzeko gonbita da, zorrotzagoa izango den inkesta bat, eta laginean parte-hartze handiagoa izango duena, etorkizunean erabili ahal izango ditugun datu fidagarriagoak eman ditzan.